

## Itsasoko belarra

*Hondarribia*, 50. zk., 1993-10: 4.

Orain arte, belarretara, baserritarra irten ohi zen belardira; gaur arrantzalea ere hasia da itsasoko baratzatik garraioan.

Bolivar Askatzaileak esan zuen behin, gogaitua zegoen batean: "He arado en el mar". (Itsasoan aritu naiz goldaketan), alferrikakoa izan zela adierazteko. Gizon handi hura ez zen alferrik aritu; nahi zuen guztia lortu ez bazuen ere, Espainiako kolonia izatetik herri asko altza eta eraman zuen askatasunera. Gaurko arrantzaleak ere, itsasoan hartzen duten belarretik bizitzeko modurik aurkitu ez badu ere, arraina eskas denean ikasi du itsasoan jaiotzen den "belarra", alga edo "auka", jaso eta txarra ez den prezioan saltzen.

Hau ez da aspaldiko lana.

Euskal hiztegieta itsas-belar honen aipamen bila ibili naiz, eta ez dut aurkitu.

*Plazido Mugikak* aipatzen ditu: "Putzar", erreka belarra; "txurgun belar" (itxas-arroka artekoa); "ur-belar", (ureko belarra). Beste belar mota bereziak aipatzen ditu, hara: senda-belarra, zorri-belar eta kukuso-belarra, eta noski, larreak mendian. Baina itsasoarekin lotuta dagoen besterik ez.

*Pierre Lhandek*: "Belar" eta "belhar" bakarrik, "bedar", eta bigarren zentzua erakusten duten batzuk, hauen artean: "Belarra busti"; kopeta busti. Itsasoarekin loturik, ez.

*X. Kintana* e.a., *2000 bi mila*: Belarra, lurrekoa bai, noski, baina ez ur edo itsasoarekin zerikusirik duenik.

*Koldo Mitxelena*, Azkue barru, Orotariko euskal hiztegiak itsasoarekin nolabait lotua: "Itxasuan hur kotera, lurrian belhar, mündüko zühain orotan osto, plazetan erhauts, itsaso eta ühaitz bazterretan hariña bihi den bezanbat". *Lehorrean*: "Ahuntzak, behiñ zoala / hauzoko belhar berrira". "Calvariora joan zan, miraz eta "zabila" deritzan belar min batekin egindako eun libra okendu berekin zituela". / Bizirikan gelditzen bada Ilbeltzian / ori umatzean esnia etxian / gazta abatzian / gazura arratsian / belarrak gizenduko du Maiatzian". "... lurreko belarra izanen da zure hazkurria". "Ara iru-orribelarra, belar bat bera izanik, iru orri berdin-berdiñak ditu". "Bedar edo pipa-bedar". "Tabako belarra" aipatzen da Lanz-en 1817 bandidoen aurka egindako prozesoa. Ba da "belar-beltza", eta "us-astoa" ere deitua, kantzerra sendatzeko erabiltzen dena. Belar "beltza" ere, eta baita "bedar-zoro", udan zingiretan aurkitzen dena.

Hauek, batzuk aipatzeko, baina belar gorria itsasoan, ez.

Zer ote du arrantzaleek dakarten belar moderno honek gaur hainbesteko estima eta balio izateko? Galdetu dut kai zahar eta berrian, eta esan didate "belar" hau orain hogeita bost bat urte jasotzen zela noizbehinka Butron pasealekuko muturrean dagoen arroka xabal-ildaskatuan, berez itsaso handiarekin etorri eta marea beheratzean geratzen zena, baina, egiatan oraingo itsas-ondoko arroketatik hartzea, nolabaiteko arrantza hau, berria da, hamar-hamabost bat urtekoa. Nolanahi jakin nahi izan dut ikuspegi zientifikotik zer

dioten, eta hala esan dit honetan dakien batek: Zazpi motatakoak omen dira alga hauek, eta janarietarako postreak egiteko eta sendagai bezala, batez ere honetarako erabiltzen omen da; kosmetikoetarako ere bai. Orain hemen jasotzen den mota, "Agar-agar" edo "Agar" izenekoa da, eta jelatina egiteko erabiltzen da gehienbat. Izena, Malayako hizkuntzatik jaso, hain xuxen; esan berriak direnetarako balio dute, baina baita bakteriologian ere, eta farmazietan laxante bezala ere bai.

Ez da, bada, harritzekoa gaur itsas-belar gorri honek lortu duen balioa. Atuna, bixigua eta txipiroia harrapatzea hobe, baina hauek falta direnean ez dator gaizki tona batzuk belar gorri kamioiean Puerto Refugion kargatu eta arraina balitz bezala fabriketara bidaltzea.